



■ KRONIKA

Urtariletik aurrera egunero, Kronika

Urte berriaren hasierarekin, urtarrilaren 2tik aurrera, egunero bilduko ditu Kronikak, bailara osoko edukiak. Hortaz, egunero izango dute eskura Kronika astigartarrek ere.

URTE berriarekin batera, pauso berria emango du Kronikak. 2014an hasi zuen, Urumea bailara osoko herrien berri emateko bidea. Orduan sortu ziren Astigarragako eta Urumeako edizioak. Eta orain, denek bat egin eta Kronika argitaratuko du egunero, bailara osoko notiziekin, urtarrilaren 2tik aurrera. Honi esker, gainontzeko Urumeako biztanleekin batera, egunero izango dute eskura Kronika astigartarrek ere. ■

■ HERNANI

Paperontziak moldatuko dira

Ikusmen urritasun dutenentzat, Aritz Hernanik diseinatutako tope bat duen tapa berri baten bitartez, konplementatuko dira zakarrontzi biribilak. ■/2

■ HERNANI

Galarretan gaur, Binakako finala

Juanenea-Endika eta Uterga-Azpirozek jokatu dute gaur, 17:00etan, Galarretan Binakako Orona Fundazioa Txapelketako finala. Urteko egunik garrantzitsuenetakoa da frontoian. ■/3

■ HERNANI

Bertsolari jaialdia, Sandiusterrin

Bertso Eskolak antolatutako Bertsolataren barruan bertso jaialdia dago gaur, 19:30etan, Sandiusterrin. Bertan ariko dira Lujanbio, Laburu edota Gaztelumendi. ■/3

■ EREÑOTZU

Urteari agurra jolas eta talo artean

Gabon Festarekin esango diote agur urteari ereñotzuarek, 18:00etan, frontoian. Jolasak eta taloak egingo dira. ■/7



Oporrak ere, jolasteko!

Neguko oporrek batera, jolasean aritzeko hamaika aukera dauzketa Urumea bailarako haur eta gaztetxoek. /2-6-7

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-3

Metal eta rock konzertua, igeriketa, haur parkea..

Astigarraga /6

Kultur agenda, EH Bilduren prentsa oharra...

Urumea /7

Mus txapelketa Goizuetan, indusketak Putzuzarren...

LONDRES Urtarrilaren 18an Bilbotik hegaldi zuzena 3 gau 3* hotelean gosaria barne	288 €	VENECIA-ESLOVENIA-ZAGREB Apirilaren 14an ASTE SANTUA Madrildik hegaldia 7 eguneko zirkuitua 4* hoteletan gosaria barne	925 €
GRAN CANARIA Urtarrilaren 19an Bilbotik hegaldi zuzena 7 gau 3* hotelean pentsio erdian	556 €	LA CORUÑA Apirilaren 28an MAIATZEKO ZUBIA Bilbotik hegaldi zuzena 4 gau 3* hotelean gosaria barne	240 €
TENERIFE Otsailaren 13an Bilbotik hegaldi zuzena 7 gau 4* hotelean pentsio erdian	407 €	NUEVA YORK-REP DOMINICANA Maiatzan Madrildik hegaldia 3 gau New York + 4 gau Hondartzan DENA BARNE	1460 €
AMSTERDAM Martxoaren 16an SAN JOSE ZUBIA Bilbotik hegaldia 3 gau 3* hotelean gosaria barne	539 €	BERLIN Ekainaren 24an Bilbotik hegaldi zuzena 4 gau 3* hotelean gosaria barne	423 €
MARRAKECH Martxoaren 16an SAN JOSE ZUBIA Bilbotik hegaldia 3 gau 3* hotelean gosaria barne	570 €	A CORUÑA	
FLANDES Apirilaren 18an Bilbotik hegaldi zuzena 4 gau 4* hotelean gosaria + bisita barne	489 €		
ESTAMBUL Apirilaren 18an ASTE SANTUA Iruñatik hegaldi zuzena 4 gau 3* hotelean gosaria barne	744 €		
JAPON Apirilaren 13an ASTE SANTUA Madrildik hegaldia 7 eguneko zirkuitua, Rail Pass eta bitxitak barne	1775 €		

www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI
BIDAIAK
Labieta, 6
943 33 00 49

JARRAITU:

■ KONTZERTUAK

Metal eta rock doinuak, Biterin

Bloody Brotherhood eta Meltdown talde hernaniarrek beraien azken diskoak aurkeztuko dituzte eta Liherrakin amaituko da.

BITERIKO areto nagusian, gaueko 21:00etan, hiru talderen kontzertu ikusgarria entzungo da gaur. Disko berria aurkeztuko dute Bloody Brotherhood eta Meltdown talde hernaniarrek,

eta Liherrakin taldea gonbidatu dute, haiekin.

Doinu eta estilo desberdinak dituzte hiru taldeek. Lehendabizi Bloody Brotherhooden death metal soinuak entzungo

dira, ondoren Meltdownen hardcore metal musika eta azkenik Liherraren rock doinuak.

Kontzerturako sarrerak salgai daude, 7,5 euroan Biterin bertan. ||

■ UDALA PAPERONTZI INKLUSIBOAK

Paperontziak egokituko dira ikusmen urritasuna dutenentzat

Aritz Hernanik diseinatutako tope bat duen tapa berri baten bitartez gaur egun duten diseinua konplementatuko da.

KAXKOAN dauden paperontzi biribilak egokituko dira ikusmen urritasuna dutenentzat datorren asteetan. Honela jakingo dute gaika non bota dezaketzen hondakina. Hori Aritz Hernani Menak diseinatutako tope bat duen tapa baten bitartez jakingo dute. Tope horrek adieraziko du non dagoen errefuxaren zuloa eta ondoren eskubitara datoz hurrenez-hurren plastiko eta ontzi arinena, papera eta organikoa.

Bakoitzak bere kolorea eta adierazgarria du, braillez ere idatzita daude baina ikusmen urritasuna duten edota itsuak diren pertsona guztiek ez dute braillea irakurtzen, eta horren ondorioz, pertsona horiek ezin dituzte hondakinak modu egokian sailkatu.

Gabezia horretaz konturatu ziren Koxka Elkartearen eta Udalarengana jo zuten. Arazoari konponbidea emateko ideia bat zuten eskuartearen: arazo hori konponduko zuen diseinu berezi bat egitea, non eta Mondragon Unibertsitatean. Ber-

tan, Aritz Hernani hernaniar batek eredu hori diseinatzeko eta propotipoa garatzeko arduratu zuen Luis Gorrotxategiren laguntzarekin. Gradu amaierarako titulua eskuratzeko lan hori landu zuen eta gaur horren emaitza aurkeztu du.

Lanketan, Aritz Hernanik azaldu duenaren arabera, «prototipo desberdinak landu eta gero» Kaxkoko paperontzietan jarriko dena aurkeztu zuen.

«Bastoiarekin antzeman daiteke topea eta, hori erreferentzia hartuta, eskubira joanez gero, errefusaren ondoren ontzi arinak, gero papera eta azkena, organikoaren zuloa doa. Beti orden bera errespetatu behar dute paperontziek», erantsi du.

Koxka Elkartearen kideek nabarmendu dutenez, «gaitasun desberdinak dituzten pertsonen ohiko eginbeharrak autonomiaz egin ahal izatea ezinbestekoa da». ||



Udaleko eta Koxka elkartearen kideak, Aritz Hernanirekin, herenegun.

■ HAUR PARKEA

Haur Parke solidarioa gaur, kiroldegian

Siria laguntzeko rokodromoa, tailerrak, jolasak, txokolate eta bizkotxoak, 3 euroan.

PASAPORTES para Siria elkarteak antolatuta, PIN solidarioa jarriko da kiroldegiko frontoian, gaur. Sarrera 3 euro izango dira, eta aurretik ere erosi ahal izango dira. Biltutako dirua Lesbosen haur errefuxiatuentzako izango da.

Parkea goiz eta arratsalde jarriko dute, 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara.

Zirkuitoak, puzgarriak, jolasak, rokodromoa, txokolata, Denontzat gimnasioak antolatutako ekintzak... izango dira. ||

■ ABESBATZA

Kantuban Erreteriko txapelketan, gaur

Gabon Abesti Sariketa Probintziala ezagunaren 72. edizioa egingo da Erreteriko Kiroldegian, Ereintza Elkarteak antolatuta eta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren laguntzarekin. 18:00etan hasita, Hernaniko Kantuban abesbatzak hartuko du parte, baita Ibaeta eta Zirri-Zarrak (Donostia), Eragiyokek (Astigarraga), eta Adaxka, Garintzi, Gazte Kemena, Kaxkabeltz eta Galtzagorrik (Erreteria) ere. ||

■ Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA
Ana Isabel Izaguirre Elorza
Joan zinen gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.
ZURE ANAI-ARREBAK
 Hernanin, 2018ko abenduaren 29an

I. URTEURRENA
Ana Isabel Izaguirre Elorza
Beti gurekin.
LIZEAGA CLAVER FAMILIA
 Hernanin, 2018ko abenduaren 29an

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA
Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora
 24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com
 Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
 Beilatokiak
 Errausketak
 Lekualdatzeak
 Eskelak, koroak...
 Zentrala Latsunbe 7, Hernani
 HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

■ ERREMONTA

Binakako final haundia gaur jokatu da Galarretan

Juanenea eta Endika, Uterga eta Azpirozen aurka ariko dira binakako txapela garrantzitsuenaren bila, 17:00etatik aurrera.

BINAKAKO Txapelketaren final haundia jokatu da gaur, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdian, Galarretan. Finala bera 17:00etan hasiko da eta bertan Juanenea-Endika, Uterga-Azpirozen aurka lehiatuko dira. Bi txapelen bila, lau erremontista urteko binakako txapelketarik garrantzitsuenan.

Uterga eta Endikak badakite zer den txapela irabaztea, elkarrekin ere irabazi bait zuten orain bi urte, baina aurtengo bata bestearen aurka lehiatuko dira eta hori ere ez da berria. 2013an eta 2017an ere bata bestearen kontra arituta-koak dira eta.

Bestetik, Juanenea eta Azpirozentzako lehendabiziko finala da. Bai bat, eta bai beste lehenengo aldiz aritu dira txapelketan eta emaitzak orain arte ezin hobek izan dituzte.

Utergaren laugarren finala da eta orain arte aurretik jokatutako hirurak ditu irabaziak; Ion, Endika eta Etxeberria III.ekin. Endikaren bosgarren finala da eta bi ditu irabaziak; Ezkurra eta Utergarekin, eta beste bi galdu zituen Urriza eta Ezkurra II.ekin.

Nafarrak dira lau finalistak, gainera; pasa den urtean bezala eta aurretik 2008raino



Azpiroz, Uterga, Juanenea eta Endika material aukeraketan.

Uterga eta Azpirozek 40-38 irabazi zieten Juanenea eta Endikari ligaxkan

joan behar da berriz lau nafar finalean aurkitzeko.

Pelota desberdinak

Finalerako nahi zuten materiala aurkitu zuten lau erremontistek, pelota aukeraketan; eta «pozik» geratu ziren. Pelota biziagoak aukeratu

zituzten Juanenea eta Endikak, Utergak aukera gutxiago izan dezan jokoan sartzeko. Bestetik, Uterga eta Azpirozek lau pelota motelagoak aukeratu zituzten. «Ikuskizunerako ez dira politak, baina finalak irabazteko dira» azpimarratu zuen Utergak.

Gainera bien arteko partidua ireki zuen txapelketa azaroaren lehenengo egunetan. Orduan, ligaxkan, Uterga eta Azpirozek 40-38 irabazi zuten, baina atzetik joan eta gero partiduan zehar. ■

■ IGERIKETA

Igeriketa Sariak 21garren edizioa beteko du gaur kiroldegian

16:00etan hasiko da eta igerilekua itxita egongo da arratsaldean.

HERNANIKO 21garren Igeriketa saria gaur izango da, 16:00etan hasita, kiroldegian. Azken urteetan Eguberrietan ospatzen da eta gaur dute zita inguruko igerilariak. Urtero bezala Hernani, Buruntzaldea eta Tolosaldeako igerilariak arituko dira eta aurtengo Fortunako infantil taldearen delegazio bat ere etorriko da.

Tolosaldeak eta Buruntzaldeak talde sendoa ekarriko dute Hernanira, Espainiako Txa-

pelketan aritzen diren igerilariak. Fortunan ere badaude maila haundiko igerilariak eta horien artean dago Enaitz Goñi hernaniarra. Hernaniko taldeko igerilariak; Xabier Huitzi, June Garmendia, Uxue Garmendia eta Intza Pagola esperientzia hartzeraz eta denborak hobetzeraz irten dira.

Eskolar eta federatu txapelketa da eta sariak bi mailetan banatuko dira. Alde batetik infantil sailkapena egongo da eta

bestetik nagusia. Igerilariak egiten duten denborari FINA puntuak emango dizkie eta horren arabera egongo da sailkapen nagusia.

Bertan, 100 metroko proba guztiak egongo dituzte igeri (100 tximeleta, 100 bizkar, 100 bular, 100 libre eta 100 estiloak) eta 4x50 libreak errelebotan.

Halaber, igeriketa txapelketa dela eta, abenduaren 29an, larunbata, igerilekuak itxita egongo dira arratsaldean. ■

■ BERTSOLATA

Bertso jaialdia, gaur Sandiusterrin

19:30etan hasita Lujanbio, Laburu eta Gaztelumendi ariko dira besteak beste.

IRAULIO Pantalone Hernaniko Bertso Eskolak antolatutako Bertsolatak gaur du bertso jaialdi nagusia, 19:30etan hasita Sandiusterrin, eta sarrerak momentuan.

Bertsotan ariko dira Mai-

alen Lujanbio, Agin Laguru, Oier Iurramendi, Beñat Iguaran, Miren Artetxe eta Beñat Gaztelumendi.

Abenduaren 20an, Kontraxan egin zen gazteen bertso jaialdiaren ondorengoa da gaurko saioa. ■

■ ZINEA

'El regreso de Mary Popins' bihar, Biterin

El regreso de Mary Popins pelikula ikusgai egongo da Biterin. Bihar eskainiko dute bi saiotan, 16:30 eta 19:30etan. Datorren asteko ostiralean, igandean eta urtarrilaren 7an, astelehenean, ere pelikula bera eskainiko dute. ■

■ MAHAI TENISA

Txapelketa, gaur Gaztelekuan bertan

Gazteek mahai tenis txapelketa jokatu dute gaur, 17:00etan, Gaztelekuan. Giro ezin hobea sortuko da. ■

■ ERRUGBIA

Errugbiko Pottoka torneo gaur

Pottoka Txapelketa estreinatuko da gaur, 15:00etan Landaren. Lehiaketa hau mugaz gaindiko emakumezkoen lehen txapelketa izango da, eta bertan 15 taldek parte hartuko dute, lau asteburu desberdinetan. Sei talde A multzoan arituko dira, XV-era, eta B multzoan beste bederatzi taldeak, X-era. X-erako lehiaketan, B multzoan, Hernani-Atlético-Txingudi, Bera Bera, Durango eta Universitario de Bilbao, Donapaleu, Neska Gaitz, Gaztedi, Biarritz eta La Rioja arituko dira. Modalitate honetan, jardunaldi bakoitza hiruki-formako txapelketetan banatuko da. Talde bakoitzak orduerdiko bi partidua jokatu ditu. Hernani-Atlético-Txingudik, Universitario de Bilbaok eta Bera Berak hauetako lehiaketa bat jokatu dute gaur, Landaren. Beste taldeek, berriz, urtarilean ekingo diote txapelketari. ■

■ TXANTXANGORRI

Tiro txapelketa, gaur Oiartzungo Arkalen

Txantxangorrik, gaur, Oiartzungo Arkale tiro eremuan, San Silbestre 2018 kompak sporting tiro txapelketa antolatuko du, elkarteak bazkideentzat. Bertan eman daiteke izena. 09:00etatik 10:00etara izango da. Ondoren, hamaiketakoaren inguruan, sari banaketa egongo da. ■

■ AZOKA SOLIDARIOA

Liburu eta disko azoka solidarioa, etzi

Beste behin, liburu eta disko azoka solidarioa jarriko du Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkartek, Plaza Berrin. Etzi izango da, goizeko 10:30etatik 14:00etara. ■


■ SAN SILBESTRE

Izenemateko postua, gaur Tilosetan

Wukroren aldeko San Silbestrerako izena emateko postua jarriko da gaur, goizez eta arratsaldez, Tilosetan. 8 euroan eman daiteke izena. Hilaren 31n egingo ezker 11 euro dira. ■

URUMEA LANEAN

2018-XII-29 larunbata



KoopFabrika

Parte-hartzeko aukera irekita, «etengabe»

‘www.koopfabrika.eus’ webgunearen bidez eman dezakete izena ekintzaileek, urteko edozein momentutan.

OLATUKOOP Sareak, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak eta EHUko GEZKI institutuak elkarlanean antolatuta, eta Beterri-Buruntza eskualdeko udalek, eta Debagoiena eta Oarsoaldeako garapen agentziek lagunduta, KoopFabrika egitasmoa egingo dute, hirugarren urtez. Donostiako Liburutegi Nagusian aurkeztu zuten duela bi aste.

«Etengabe» izenemateko aukera, nobedadea

Hiru edizioen ondoren, nobedade batekin aurkeztu dute aurtengoa; «hemen-dik aurrera izenemate epea irekita egongo da etengabe», adierazi zuten antolatzaileek. «Orain arte epe bat geneukan izena emateko, eta ondoren hasten zen prozesua. Aurten, proiektuak haien baldintzen eta bizi-zikloen arabera hurbiltzeko aukera dute», onartu zuten.

Programaren xedea, ordea, ez da aldatu. Ekintzailetza sozial kooperatiboren alde egiten jarraituko dute, hainbat ezaugarri dituena: kolektiboa, autokratua/demokratikoa, bideragarria, bizigarria, sustraitua/saretua, eraldatzailea, hezitzailea, dibertsifikatua eta lanaren burujabetzari garrantzia ematen diona.

Horiei deia egin diete, eta dagoeneko eman dezakete izena www.koopfabrika.eus webgunearen bidez

Perfil mota ezberdinak

Antolatzaileek aurkezpenean nabarmendu bezala, hartzaile mota ezberdinak daude: ekintzaile indibidualak, dimentsio kolektiboa duten proiektuak, Euskal Herri osoan oso hedatua dagoen

elkartegintza profesionalizatu nahi dutenak, abian egonda ere kontsolidatu nahi duten proiektuak...

50 proiektutik gora, orain arte

Orain arte, kuantitatiboki, azken urteetan 50 proiektutik gora lagundu dituzte garatzen. Dena den, kopurua ez dute nabarmendu nahi: «ez gara zifra aldetik oso resultadistak. Zerbait eraldatzailea, eta iraunkorra, eta egonkorra egin nahi badugu, pertsonen bizi-zikloari lotuta izango da».

Emaitza kualitatiboen berri ere eman dute; eta bereziki, babes kolektiboa duten proiektuak lagundu izana azpimarratu dute. «Oso errotuta dago ekimen indibidual eta ideia brillanteen kultura, baina gero konturatzen zara aurrera egiten duten proiektuak babes kolektiboa dutenak direla».

Formatuaren aldaketa ere bai

Izenemate-moduaren aldaketarekin, formatua ere aldatu egingo da, hirugarren edizioan: «proiektuek izena eman ondoren, tutore edo bidelagun bat eskainiko zaie, haien beharren eta sektorearen arabera (20 pertsonatik gorako talde bat dago bidelagun izateko prest honezker). Izena eman duten pertsonak formazio trinkoa jasoko dute eta, publiko zabalako batera iristeko asmoz, bi aukera eskaini dituzte: KoopFabrika Trinkoa eta KoopFabrika Ibilbidea».

Trinkoa, otsailaren 4tik 15era izango da, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; eta Ibilbidea, martxoaren 21etik ekainaren 6ra bitarte, ostegun arratsaldeetan, 15:00etatik 20:00etara.

ITUROLATARROK

Bakoitzarena elkarrekin

Ekintzaile eta sortzaile naizen momentutik, bakardadea, espazio ez egokia, erantzunik gabeko galderak, beldurra, eta beste hainbat egoera ezberdinetatik igarotakoa naiz. Baldintza hauek nola ekidin? Agian ezin dut nik bakarrik... norbait laguntzeko prest?

Hernaniko Iturola Elkarlan Sorgunea-ekin eta bertan ekintzaile berriekin topo egiteak barne poza piztu zidan. Egoera berean dauden ekintzaileekin kontaktua izateak, pertsona baloratua eta indarberritua sentiarazten zaitu. Baina jarraian beste galdera bat bururaten zaizu, antzeko lanak ditugunok ba al dugu geure tartea eta ikuslegoa? Kideren bat aurreratuko al zait nire egitasmoan, nire lanean? Ala kompetentzia hau gure lan eta proiektuaren eragilea bihurtu daiteke?

Kompetentzia hitza azaltzen den bakoitzean oilo ipurdia ageri ohi zaio bati baino gehiagori... Esanahiaz alda al daiteke eta kompetentzia beharrezko laguntasun, hauspo edo ikaskide gisa ulertzera iritsi? Proiektu bateratzaile

eta pertsonala landuko duena? Bata bestearengandik ikasi eta erakutsiko dioguna?

Kompetentzia lagun bihurtzea, erabaki norberekoi bezain eraginkor, eraikitzaile, sortzailea, eraldatzailea, berri eta lagunkoia izatera hel daiteke. Eta denok irabazi.

Kompetentzia beraz, lan eta ekintza antzekoetan gabiltzanok elkarrekin indartsuagoa izateko aukera aparta dirudi orain. Bakoitzaren egitasmoa elkarrekin aurrera eramateko bidelaguna.

Idoia Telleria Maritzalar
www.idophotographylab.com
Barne erretratuak kanporatzen, erretratu soziala.

Hernaniko Elkarlan Sorgunea Iturola.eus
Florida Auzoa, 28
20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAN BABESTUTAKO ATALA
Ezago Pollgonoa, 21 - Zikuiaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

DIRU-LAGUNTZAK

Kontratazioarako laguntzak, Beterri-Buruntzak

Beterri-Buruntza eskualdean kokatuta dauden tokiko enpresentzat kontratatzeko diru-laguntza deialdia argitaratu dute Beterri-Buruntzako udalek. Denera, 123.000 euroko poltsa jarri dute erabilgarri, eta eskaerak 2019ko apirilaren 15era arte egin ahal izango dira. Ezinbestekoa izango da kontratatzen dena langabezian egotea eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa altan egotea, eta Beterri-Buruntzako herrietako batean erroldatuta egotea. Enpresen kasuan ere, bertan egon beharko dute, eta enplegu sorrera berria ekarri behar dio. 2018ko ekainaren 21etik aurrerako kontratuak lagunduko dira, hiru hilabete-koak badira, gutxienez. Informazio gehiagorako: www.andoain.eus. ■

ZUBI-LANA

ESKAINITZAK

LOGIKALINE enpresak BOST TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Pertsona bat behar da adineko bat zaintzeko, titulazioarekin. Kontratua eta gizarte segurantzarekin. Deitu: 649 887 976



euskara
ari du

Baietz Hernanik! amaitu da. Urte osoan aritu gara buru-belarri hernaniarrak hizkuntza-ohiturak aldatzera animatzen, euskararen erabilera bultzatzearen ardura gure esku ere badagoela jakinarazten, norberak uste baino gehiago egin dezakeela ohartarazten. Ohiturak aldatzea ez da erraza, baina jarriz gero, lor daiteke.

1118 erronkalari jarri ditugu beren harremanak euskalduntzen, eta jende gehiagorengana helarazi dugu gure mezua. Pozik gaude lortutakoarekin, baina argi daukagu Baietz Hernanik! amaitu arren, oraindik lan handia dugula aurretik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu urte osoan bidelagun izan ditugun eragile eta erronkalari guztiei. Zuengatik ez balitz, Baietz Hernanik! amets hutsa izango zen.

Diruz lagundu gaituzten enpresei eta erakundeei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, beraiei esker, Baietz Hernanik! martxan jartzea lortu baitugu.

Eskerrik asko denoi, eta adiorik ez! Laster arte!



■ KULTUR AGENDA



Aste honetan ere, jarri dute Jolas Aretoa, kultur etxean.

Urtea jolasean hasteko, haur parkea kiroldegian

Jolas Aretoa, aldiz, ostegun eta ostiralean irekiko dute, 9 eta 12 urte bitartekoentzat.

ETZI emango diogu bukaera urteari, eta urte berriaren ongi-etorriarekin batera, agenda berria estreinatuko dute astigartarrek. Jolasean bukatuko dute urtea gaztetxoek, eta halaxe hasiko dute urtea, baita ere. Urtero bezala, asteazkenen jarriko dute Eguberrietako Haur Parkea. Kiroldegian eta ikastolako patioan izango da, goiz eta

arratsaldez: 11:00etatik 13:30etara; eta 16:30etatik 19:30etara. Ostegun eta ostiralean, aldiz, Jolas Aretoa jarriko dute, berriro ere, kultur etxean.

Sagardoaren hilabetea

Gabonak pasata, sagardoa izango da urtarileko protagonista. Txotx denboraldiaren hasiera egingo dute urtarilaren 16an. ■

URTARRILEKO AGENDA

1-7 Sagardoetxean Gabonetako pinua apainduko dute sagar eta kandlekin, eta bisitariak desioak idatzi, pinutik zintzilikatu eta kandela pizteko aukera izango dute urtarilaren 7ra arte.

2 Eguberrietako haur parkea. Ludoteka, puzgarriak, wipeout pasabidea eta erratza, gladiadore borroka, etab. kiroldegian. Eta pedalezko ibilgailuen zirkuitua eta ogi eta talo tailerrak ikastolako atarian. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:30etara; eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara. Sarrera: doan.

3-4 Jolas aretoa. 9 eta 12 urte bitarteko haurrek mahai-jolasak, ping-pong mahaia, futbolina, bilarra eta zurezko hainbat jokoekin jolasteko aukera izango dute. Sarrera irekia eta doakoa. Kultur etxean: goizetan, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 18:30etara.

10 Ipuin kontaketa: *Gose Handiko Beldarra* (Kalandrak). 3 urtetik aurrerako haurrentzat Lur Korta kontalariaren eskutik. Liburutegian, 18:00etan.

10-17-24-31 Gurasolagun. Euskaraz dakiten gurasoak eta ikasten ari direnak elkarrekin euskaraz hitz egiteko gunea. Haurrek ere bertan egoteko aukera izango dute Xaguxar aisialdi taldeko begiraleekin batera eta hilean behin tailerra egingo da.

Ikasturte bukaeran gehien etorritakoek saria jasoko dute. Bi ekintzak doakoak dira. Izen-ematea: 943 335 064 (kultur etxean) edo *iker-g@aek.eus* helbidean. Antolatzaileak: Udaleko euskera saila, AEK euskaltegia, Xaguxar eta Herri Eskolako guraso elkarteak. Ikastolako jangela txikian, arratsaldeko 16:45etatik 18:00etara.

11 Azstigazte: sari-banaketa. 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzako lehiaketaren sariak banatuko dira. Oraingoan, lehiaketa 'maitasuna eta laguntasuna' gaiaren ingurukoak izan da. Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan. Informazioa eta antolaketa: Astigarragako Udaleko gazteria saila.

12 Zinema: *Paddington 2*. Kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan. Iraupena: 104 minutu. Sarrera: 2 euro. Antolatzailea: Euskara saila.

15 Irakurketa kluba. Hilabete honetan Virginia Wolf idazlearen 'Gela bat norberarena' liburua (Consonni, 2013) irakurriko da. Saioa Isabel Etxeberriak gidatuko du. Partehartze irekia eta doakoa. Liburutegian, arratsaldeko 19:30etan.

16 XXVI. Sagardo Berriaren Eguna. Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, sagardotegietako txotx boladari hasiera emateko. 12:00etako prentsaurrekoaren ostean, denboraldiari hasiera emango dion gonbidatuak sagarrondo berri bat landatuko du eta denboraldi berriko

lehenengo kupela irekiko du. Ekitaldietan parte hartzeko bost sarrera bikoitz zozketatuko dira. 17:00etan, haurrentzako ikuskizuna izango da Joseba Barandiaran plazan eta 18:30etatik aurrera trikitilariak eta tabernetan pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.

20 Zientzialari Eroa: *Dr. Bubble & Mc Fly*. Dok eta Mac bere laguntzaile bekadunak kimika berezia dute euren artean, baina bi kimikari xelebreek nahikoa dute elkar ulertzearekin. Kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan. Adina: 5 urtetik gorakoentzat. Sarrera: haurrek, 2,5 euro; helduek, 5 euro.

26 Anton Abbadia: *Dublinetik Hendaiara*. Txomin Heguy antzezlea, Xabi Zeberio eta Mixel Ducau musikariak eta Alaia Philips Ducau abeslaria. Ikuskizunean, antzerkia eta musika uztartzen dira Anton Abbadiaren bizi-bidaiaren berri emateko. Kantuek Anton Abbadiaren bizitza pasarteak irudikatuko dituzte eta musikaren eskutik, bidaia egingo dugu Irlanda, Frantzia, Zuberua eta Etiopiara. Kultur etxean, 20:00etan. Sarrera: helduek, 6 euro; haurrek, 3 euro.

28 Literatur solasaldia. Jorge Carrerok zuzenduta, hilabete honetan Jeanne Benameur idazlearen *Las retrasadas* liburuaren inguruko izango da. Hizkuntza: gaztelaniaz. Liburutegian, 19:30etan.

■ EH BILDU PRENTSA-OHARRA

«Azken Plenoan, EAJk 800 m²-ko lokala Haurreskolarako izango dela adierazi zuen»

EH Bilduk ohar baten bidez adierazi du eurek Haurreskolarako proposatutako kokapena «onartu» duela EAJk «bi urteren ondoren».

HAURRESKOLAREN gaia izan da legegintzaldi honetako protagonistetako bat, eta gai horri heldu dio, oraingo honetan, EH Bilduk prentsa-ohar bitartez: «EH Bilduk proposatutako Haurreskolaren kokapena onartu du EAJk bi urteren ondoren».

Oharrean dioenez, «azken Plenoan, EAJk 800m²ko lokala Haurreskolarako izango dela adierazi zuen». «Aho txikiarekin» onartu zuela diote; hala ere, EH Bilduk «positiboki baloratzen du. Pozgarria da urte hauetan oposiziotik egindako lanak balio izan duela ikuste».

Mozioa, 2016an

Legegintzaldiaren hasieratik izan da gai garrantzitsua Haurreskolaren haundipena, eta ordutik ere, eztabaida izan da kokapenaren inguruan. Hori ikusita, EH Bilduk

mozioa aurkeztu zuen 2016ko azaroaren 19ko Plenoan. Bertan, besteak beste, eskatzen zen «Urumea Berrin Udalak jasoko duen 800 m² inguruko lokalean Haurreskola behin betiko kokatzea 2018an martxan izan dadin». EH Bilduren eta PSE-EEren aldeko botoa jaso zuen mozioak, udal taldeak adierazi bezala; EAJk, aldiz, puntu horren kontra bozkatu zuen.

EH Bilduren ustez, «ordutik, EAJ noraezean eta guztia nahasiz ibili da. Bere lehen proposamena Haurreskola egungo Kultur Etxean kokatzea izan zen. Ondoren, AGUIn egingo diren etxepeko lokala etorri zen. Gero, Arrobitxuloko harrobiaren kokalekua mahaigainerratu zuen. Azkenik, Urumea Berriko Kontxa Etxeberria plazara gerturatu zen, baina ez EH Bilduk proposatutako lokalera, txikiago batera baizik (550m²).

550m²ko lokal hori etorkizunean txikiagia izango zela onartuz, egungo Haurreskolaren lokal haundia mantentzea ere proposatu zuen».

«Ziur atzeratuko dela»

Kokapena erabakita, EH Bilduren hitzetan, «argi dago EAJ ez dela gai izango 2016ko azaroan Udal Osoko Bilkurak emandako mandatua betetzeko: Haurreskola berriak 2018an zabalik behar luke baina EAJren utzikeriak haur-eskola berriaren proiektua atzeratu du. Estimazio onenen arabera, 2020 urte hasierarako egon liteke prest haurreskola berria, baina EAJren erritmoa eta arduragabekeria ikusita EH Bildu ziur dago atzeratuko dela».

Hori horrela, EH Bilduk dio: «proiektua bikaina egin dadin saiatuko gara, eta horretarako, guraso eta hezitzaileen partehartzea bermatzea eskatuko du». ■

■ PRESOEN LAGUNAK

Martutenera martxa, bihar

Urtero bezala, Martuteneko espetxera martxa antolatu dute biharko, eta harekin bat egin dute Astigarragako Presoen Lagunek. Hemanitik 10:30etan abiatuko da, eta 11:00etan egingo du geldialdia, Astigarragan; kupela duen errotondan, herriko sarreran, jarri dute zita. Eguerdiko 12:00etan egingo dute ekitaldi nagusia, espetxean. ■

■ OHE ELASTIKOAK

Ohe elastikoak, bihar arte

Ohe elastikoak jarri ditu Astiko Astigarragako merkatari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak Joseba Barandiaran plazan. Bihar arte izango dira bertan, eta sarrera bat lortzeko, saltoki eta tabernetan erosi edo kontsumitu beharko da. Gaur eta bihar goiz eta arratsaldez izango da ibiltzeko aukera: 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:30etara. ■

■ UDALA

Adinekoen beharrak aztertzen, Udala

65 urtetik gorako herritarren beharrak aztertzeko, ikerketa abiatu du Udalak. Hori dela eta, Gizarte Langilea jarriko da adinekoekin harremanetan. Telefonoz adostuko da egun bat, eta orduerdiko elkarrizketak egingo ditu, bakoitzarekin. Galdera eta erantzunen konfidentzialtasuna bermatuko da. Informazio gehiagorako: 943 33 52 32. ■

■ TXIRRINDULARITZA

Aurreneko postuetan, Jaime Romero

Gipuzkoako Bioracer Oiarzun Bike txapelketaren seigarren jardunaldia burutu zuten larunbatean, eta bertan izan ziren Jaime Romero eta Telmo Semperena astigartarrak, junior mailan. Urko Semperena, oraingo honetan, ez zen bertan egon. Kanporaketa eta puntuaketa-proba burutu zituzten; bigarren izan zen Romero aurrenekoan, eta irabazi egin zuen, bigarrena. ■

■ EREÑOTZU GABON FESTA

Urteari agurra ereñotzuarrek, jolas eta talo artean

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera egingo dute Gabon festa ereñotzuar gazte eta helduek; bertako frontoian izango da.

URTEA ezin hobeto bukatzeko plana luzatu dute ereñotzuarrek; Gabon Festarekin esango diote agur gaur 2018 urteari. Arratsaldeko 18:00etan izango da hori, bertako frontoian.

Jolas, talo eta guzti

Familiartean, gaztetxoek eta helduek gozatzeko moduko festa izango da. Arratsaldean zehar jolasak egingo dituzte, baita taloak egiten ikasi ere. Ondoren, horiek dastatzeko aukera ere izango dute.

Gabon kantak, kaleak alaitzen

Ez da, ordea, Gabonetako ekin-tza bakarria izan. Gabon kantak abestuz alaitu zituzten kaleak astelehenean, Txirrita eskolako haur eta gurasoekin, fami-liartean. ■



Haur eta gurasoek alaitu zituzten kaleak astelehenean, Gabon kantekin.

■ GOIZUETA EMANALDIA



Umore Ona abesbatzak eskaini zuen emanaldia Goizuetako elizan, besteak beste.

Gaztetxoak eta helduak bat, kantari

Kantari pasa dute asteburua Goizuetako abesbatzetako kantari-ek. Larunbatean, Hernanin eskaini zuten kontzertua Umore Ona abesbatza-koek, Hernaniko Musika Bandarekin eta Ozenki abesbatzarekin batera. Eta igandean, herriari eskaini zioten bere emanalditoxa elizan, Eneko Amundarainen gidaritzapean. Bigarrenetan, gainera, ez ziren bakarrik egon, beraiekin batera abestu baitzuten Goizuetako Gaztetxoek Ainara Narbarteren zuzendaritzapean; bertan izan zen Imanol Kamioren Akordeoilari taldea ere. Sorpresaz, bukaeran agertu ziren Ozenkiko kideak. ■

■ GOIZUETA ERREGEAK

Errege Magoek kabalgata, gaur zortzi

Errege Magoen etorrerak itxiko ditu, beste urte batez, Gabonak, baita Goizuetan ere. Horiei ongietorria egiten diete, opariak utzi aurretik, Guraso Elkarteak antolatuta. Gaur zortzi izanen da kabalgata, arratsaldeko 18:00etan hasita. ■

■ GOIZUETA UMORE ONA

Mus txapelketa etzi, urtea bukatzeko

Arratsaldeko 16:00etan hasita izanen da, Umore Ona elkartean.

URTEA agurtzeko zitari eutsi diote aurten ere Umore Ona elkarteko kideek, eta mus txapelketa antolatu dute, urte zahar gaueko giroa pizteko. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, elkartean bertan.

Izenematea, aurretik

Txapelketa hasi aurretik eman beharko da izena, Umore Ona elkartean bertan. 10 euro ordaindu beharko dira, bikoteko, eta sari potoloak izanen dira jokoan, mus jokalaria onentzat. Inguruko herrietatik ere partehartzaileak izatea espero dute. ■

■ EREÑOTZU ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Indusketa gertutik gaur, Putzuzarren

Ikerketa arkeologikoa egingo du Aranzadi Zientzia Elkarteak Putzuzarren. Horretarako, inguru horretan dagoen uesteko trikuharri bat industuko da. Indusketa arkeologikoa ikusteko aukera izango dute herritarrek, baita inguruko trikuharrien ezaugarriak ezagutzeko aukera ere. Gaur izango da hori, 09:00etatik aurrera, Putzuzarren, Akolako atsedeen-lekutik 200 metroa iparrekialderuntz, pistaren ondoan. ■

■ GOIZUETA ZINEA

'Olentzero eta subilaren lapurreta', gaur

Haurrek tarte dibertigarria pasa dezaten, plana egin die Udalak, eragileekin batera osatutako agendan. *Olentzero eta subilaren lapurreta* pelikula ikusi ahal izanen dute gaur, arratsaldeko 17:00etan hasita, udaletxeko ganbaran. Sarrera irekia izanen da. ■

■ ARANO



Taldeko argazkia egin zuten aranoar gazte eta helduek, abiatu aurretik.

Etkez etxe ibili ziren aranoarrak

Olentzeroren etorrerari abestu zioten aranoarrek ere, haur eta helduak goizean goizetik abiatu ziren, etxeak eta kaleak alaituz. ■

■ GOIZUETA



Argazkia: FELIX LOIARTE

Olentzero bisitatu zuten hainbat gaztetxok, baita hari kantatu ere.

Goizuetarren ametsak ere, beteta

Goizuetarrek ere, izan zuten Olentzeroren berri. Argazkiak atera eta hari abesteko hainbat aukera izan zituzten, eta bueltan, gauean beren ametsak bete, eta opariak utzi zizkien. ■

ezkati

ileapaindegia

Iturri, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea. Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
/ Egunez: **Odrizola** URNIETA Idiazabal, 18 **943 334014** / Gaez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA

GAUR

Goizean zeru laino ugariarekin egongo da eta euri langar pikka bat egingo du goizaldean. Arratsaldean eta gauean ostarteak irekiko dira eta ostarte zabalak geratuko dira. **Min.7° / Max.11°**

BIHAR

Oskarbi egongo da. Egunsentian lainoa sortuko da, baina ez du luze iraungo. Eguzkia izango da nagusi. Minimoak jeitsi egingo dira eta maximoak igo. **Min.4° / Max.14°**

(euskaletan)

ABENDUAK 29.
HERNANKO KROLDPEGIAN:
SRIAKO HAUR ERREFUXIATUENTZAKO
DIRU BILKETA SARRERAREN BITARTEZ
(3 euro)
-ROKODROMOA-BIZKOTXOAK
-TXOKOLATEA-JOLASAK etab

TELESAILETAN ADI (K)TUA

Urteko telesailen nire ranking-a



URTEA amaitzear dagoen honetan, nahitaezkoa suertatzen zait atzera begirada bat botatzea. Askotan gertatzen zaigun moduan (nostalgia izan liteke edota gure buruari egiten diogun azterketatxo bat), azken hilabeteetako momentu nagusiak gogora ekartzen ditugu. Eta nire kasuan, askok eskatzen DIDAtelako, urteko telesail onenen ranking pertsonala sortzen dut.

Badakit halako zerrendak egitea ere pertsona bakoitzaren arabera dela, baina nere adi(k)tu maila oinarritzat hartuz, ekingo diot honi. Halako lanak egiterakoan, bi taldetan banatzen ditut telesailak: estreinatutako berri diren telesailak eta bi denboraldi edo gehiago dituzte-



nak. Azkenean, ezin da-eta era berean epaitu berria den trama batek izan dezakeen interesa, luzeago jokatu eta garatu den istorio batekin.

Denboraldi bi edo gehiago dituztenak

Itzulitako lanen arteko nire podiumean, azken urteetan bueltaka erabili eta askotan aipatu ditudan hiru telesail ditugu. Hirugarrenean, *Breaking Bad*

haundiaren *spin-off* edo 'iloba' den *BETTER CALL SAUL*. Bere laugarren denboraldiarekin, geroz eta haundiagoa egiten ari den komedia beltza. Bob Odenkirk maisu bere pertsonaiaren bihurtzea kontatzen. Bigarrenean, *ATLANTA*, Donald Glover aktore eta gidoilariak sortua. Lehen denboraldiak irabazitako Emmy eta Golden Globe sariak mereziak bazirela dakigunok, bigarren honetan antzeko bidea

jarraitzeko bezelako lana egin duela ere esaten dugu. Eta azkenik, lehen postuan, *THE AMERICANS* haundia. Sei denboraldiz Jennings familia, KGBko agente sekretuak diren espioiak izandako Estatu Batuetako bizitzak kontatu digun programaren amaierak, merezitako bukaera borobila izan du. Bere aktoreek egindako lana eta azken kapituluetan izandako zirrarak eman diote podiumeko gailurra.

Berrienen artean

Berrienei kasu egiten badiegu, *FOREVER* komedia dugu hirugarren postuan. Elkarrekin bizitza monotono luze bat bizi duen pareja batek erlazioari astindu bat eman nahi dioenean gertatzen dena... Ezer gutxi jakitea hobereena telesail honekin, hobeto gozatzeko. Bigarren postuan, *PATRICK MELROSE*.

Benedict Cumberbatch-ek bakarrik jorratu dezakeen paper tragiko, narzisista nahiz (des)atssegina. 5 kapitulu osaturiko telesail labor potente eta txundigarria.

Eta azkenik, urteko telesail onenaren titulua, Julia Roberts eta Sam Esmail aktore eta zuzendariak lotu dituen *HOME-COMING* paregabea. Thriller trama potente naiz interesgarria, jorrapen indartsuarekin. Bisualki ipnotikoa eta musikaliki arraro nahiz erakargarria. Bukaerara arte begiak pantailara pegatua utziko zaituena.

Artikulu beste hainbat tele-sailekin jarraitu genezake, baina toki gutxi dugu horretarako. Dena den, kronika.eus webgunean, egindako zerrenda luzea aurkituko dute gehiago jakin nahi dutenek. Ezer gutxiago esateko, agian, ikusi telesail gehiago! ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Gabonetan, oparia Euskaltelen esku!

SOLIK **29'9€** / hil 6 hilabetez

Zatuz Euskaltelera

60 MEGA	10GB DD MUGAGABEAK
PREMIUM TBa	FINKOA DD MUGAGABEAK

Fitness jardueraren kontrola duen smartwatch hau ZURETZAT OPARI

euskaltel.net

OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

nibiru
UNIBES ERREKONSTRUKTIBO ENTIKOA

- Kobido Liftinga
- Spa tratamendua
- MASAJEAK
- Manikura Pedicura
- Indiba tratamendua
- Fotodepilazioa
- Automakillaje ihasteroa

IZPIZUA 1 - HERNANI
T: 943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

MESAS Y SILLAS

MAIER

ERROSPE, S.L.

HOSTALARITZA
Jatetxeak
Elkartek
Sagardotegiak

ETXEA
Aulkiak
Sukalde eta jangelako mahaiak
Aparadoreak
Txokorako altzariak

NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK

943 833 506
605 71 92 79
MAIER@EUSKALNET.NET

Santio Erreka Auzoa, 45 - ORIO-AIA